

# Mazzucato eta inor haserretuko ez duen industria-politika



ROSER ESPELT ALBA  
EKONOMIALARIA

**B**ost hamarkada igarota, badirudi Washingtongo Kotsentsua atzean uzten ari garela. Krisi klimatikoak eta, batez ere, Txinaren igoerak interesa berritu dute estatuak ekonomian izan beharko lukeen gidaritzan eta parte hartze aktiboan. Garai bateko austeritatearen kudeatzaileek, Mario Draghi-k, kasu, industria-politika ausartak aldarrikatzen dituzte orain. Norabide horretan, itzal handia izan du autore baten obrak, baita Euskal Herrian ere: Mariana Mazzucato eta bere “Estatu ekintzailea”.

Mazzucatok proposatzen duena ez da berria, estatu garapenzale asiarraren bertsio berritua baizik. Industrializazioa eta berrikuntza ardatz dituen agenda proposatzen du, trantsizio ekologikoa eta desberdintasunaren murrizketa bezalako helburuak dituen agenda, zeina estatuaren, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko epe luzerako aliantzan oinarritzen den. Proposatzen du aldaketa klimatikoaren aurkako borroka egitea inbertsio publikoaren bidez eta inbertsio pribatua baldintzatzeko zenbait mekanismoren bidez, eta desberdintasunaren aurkakoa aurre-banaketa mekanismo bidez. Hau da,

Mazzucatok proposatzen du aberastasuna orain birbanatu ordez, aberastasun gehiago eta berria sortzea, ondoren modu progresiboan banatzeko

aberastasuna orain birbanatu ordez, aberastasun gehiago eta berria sortzea, ondoren modu progresiboan banatzeko.

Ikuspegi ezkertiarrenetik leporatu izan zaio kapitalismoaren defendatzaile irmoa izatea, keynesiar petoa, berak adierazi bezala, kapitalismoa bere buruagandik salbatu nahi duena. Baina, badu zentzurik kritika horrek? Ekonomiaren gidaritzan publikoa, inbertsioaren demokratizazioa eta epe luzerako planifikazioa, helburu sozioekonomiko jakin batzuen barruan, zalantzarik gabe,

alternatiba ekosozialista eraikitzeko ezinbesteko zutabeak dira.

Hala ere, epe luzerako ñabardura bat lirudikeena, proposamenaren epe motzerako muga nagusietako bat ere bada. Mazzucatok ez du kontuan hartzen kapitalismoa klase antagonikoen gizartea dela, ez ditu kontuan hartzen botere harremanak, eta datozkigun eskasia garaia ikusita, erabilera balioaren eta truke balioaren arteko kontraesan gorakorak ezinezko egingo duela sektore pribatuaren eta interes orokorraren arteko kotsentsua. Zenbateko desberdintasuna da desberdintasun onargarri bat? Estatuaren parte hartzea ekonomian klaseen arteko lehiak zehaztuko du, ez berrikuntzak.

Egungo urgentziak eraginda, progresismoak bere proposamenak besarkatu ditu, balizko errealismo bat oinarri, kapitalismoaren saihestezintasuna onartzean datzan errealismo bat, baina ez dituen horren joko-arauak aitortzen. Mazzucatok *Mission economy* azken liburuan baieztatzen du ez dagoela “merkatuaren portaerarik saihestu ezin denik”. Ados, baldin eta merkatu hori ez bada kapitalista. ●

FINALAURREKOAK

ZARAUTZ



Azaroak 24, igandea, 17:00



Aritzbatalde Udal Kiroldegia

GBT24

GIPUZKOAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
2024

[www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa](http://www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babesleak:

